

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko merkataritza establezimenduetan errotuloak euskaraz ipintzeko 2025. urteko dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 833388.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/833388>)

Laburpena: Tokiko Gobernu Batzarraren 2025ko maiatzaren 6ko 3 zenbakiko Ebazpenarena, Bermeoko merkataritza-establezimenduetan euskaraz jarritako errotuloak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena. BDNS (Identif.):833388

Lehenengoa: Bermeoko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresa txikien tituluarek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira: establezimenduen kanpoko errotulua, autoen errotulazioa, toldoen errotulazioa, biniloen errotulazioa.

Hirugarrena: Oinarri Arautzaileak. Deialdi hau Bermeoko Udalaren 2025eko aurrekontuetan jasota dago eta 2023ko maiatzaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurako 7. puntuan onartutako 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Bermeoko Udalaren Webgunetik jaitsi ahal izango dira:

— <https://www.bermeo.eus/1304.html>

Laugarrena: Zenbatekoa, guztira 2000 euro, 01400-33540-4710000 aurrekontu-partidaren kontura. Establezimenduetan euskaraz jarriko den errotuluaren kostuaren %75 finantzatuko da, 300 euroko mugarekin.

Bosgarrena: Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da. Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

Bermeon, 2025eko maiatzaren 19an.— Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly